

25 GAU ETA BAT GEHIAGO

Gilkitxaro antzerki taldeak 25 urte

Ane Zabala & Galder Perez



EHAZE-Antzerkizale elkarte

info@ehaze.eus

<http://www.ehaze.liburuak.eus/>

Izenburua: 25 gau eta bat gehiago.
Gilkitxaro antzerki taldeak 25 urte

Egileak: Ane Zabala & Galder Perez

Hitzaurrea: Oier Guillan

Hitzostea: Olatz Gorrotxategi

Argitaratzailea: EHAZE-Antzerkizale elkarte

Ezaugarriak: Antzerkia
232 orrialde. 14×22cm.

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2021eko abendua

Lizentzia: Creative commons

ISBN: 978-84-09-35451-1

25 gau eta bat gehiago



Liburu hau Galder Perez eta Ane Zabalak osatutako Gilkitxaro antzerki taldearen 25. urteurrena ospatzeko sortu da. Liburuaren barruan bi atal topatuko ditu irakurleak: batetik, Euskal Herriko hamaika sortzailek partekatutako oroitzapenak, Gilkitxarorekin lotuta baina, era berean, euskal teatroaren garai oso bateko erretratua osatzen dutenak. Bestetik, taldearen hiru obretako gidoiak: *Honolulu, leku bat, 8 begi* eta *Adarretatik zintzilik*.

Ane Zabala (Bilbo, 1975)

Aktorea eta kazetaria da. Teatro eta irratia oso gaztetatik uztartu izan ditu. Gilkitxaroko lanez gain, beste konpainia batzuetan ere izan da aktore. Umeentzako antzezlan askotan lan egin du, Glu Glu eta Eidabe konpainiekin, esate baterako. Ramon Albisturrekin batera Zuberoan sortu zuen Fernando Arrabalen *Gernika*. Kazetaritzan Radio Euskadin urte mordoa eman eta gero, Hamaika Telebista, Herri Irratia, Prest eta Berton aldizkarietan aritu izan da. Gaur egun, koordinazio eta kazetari lanak egiten ditu Bilbo Hiria irratan.

Galder Perez (Bilbo, 1975)

Antzerkigile, aktore eta kazetaria da. Irratia eta teatroa oso gaztetatik uztartu izan ditu. Gilkitxaroko lanez gain, egile, zuzendari eta aktore lanak egin ditu beste konpainia askorentzat. Besteak beste, *Cocidito madrileño* eta *Fausto*, herritar eredu garri antzezlan arrakastatsuetan ibili zen. Haurrentzako ipuinen antzerkirako moldaketa asko egin ditu. Aktore izan da pelikula batzuetan eta telebistako gidoilari ere bai. *Lurrun* minez da idatzi duen azken lan entzute-tsua. Gaur egun, EITBko irratietako kultur arloan ari da lanean.

Gilkitxaro antzerki taldea

Ikastolatik atera zen lagun talde bat, eskolan hasitakoari jarraipena emanez, Deustuko Gazte Lokalean biltzen hasi zen antzerkia egiteko gogoz eta asmoz. 1996an antzeztu zuten aurreneko obra. Ordutik gaur egunera antzezlan propio mordo sortu dute eta beste sortzaile askorekin batu izan dira. Gaztetxez gain, bestelako herri-ekimenekin nahastuta egin dute antzerki-ibilbidea. Plaza askotan erakutsi dituzte haien lanak. Kolektibo handi bezala hasi zena, urteak pasatuta, lagun biren arteko antzerki ibilbide bilakatu da. Azken urteetan Ane Zabalak eta Galder Perezek eman diote jarraipena, hasierako helburuei helduta: askatasunez sortu, dibertimenduak gidatuta.

Obra nagusiak:

Infernuko atarian (1996)

Aki no pasa nada (Kale-ikuskizuna) (1999)

Trokaolatarrak (2000)

Porrusalda (Kale-ikuskizuna) (2001)

Elevator (2003)

Honolulu, leku bat (2004)

Mirande kabareta (2008)

8 begi (2009)

Urak ttiki dire (2013)

Adarretatik zintzilik (2015)

Off the Record (2016)

Morbus operandi (2017)

ETaren agiri bulegoa (laburra) (2019)

ETaren agiri bulegoa (2021)